

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

- **Baliabide fisikoak:**

Ordenagailuak ezinbestekoak dira aplikazioa sortzeko eta kudeatzeko prozesu guztietan. Garrantzitsua da ekipamendu hauek egokiak izatea, aplikazioak etenik gabe eta kalitatezko zerbitzua eskainiz funtziona dezan. Horrez gain, zerbitzuaren mantentze-lanetarako eta beharrezko eguneratzeak egiteko erabiliko dira, aplikazioa egonkorra eta fidagarria izateko edozein egoeratan.

- **Baliabide intelektual eta giza baliabideak:**

Aplikazioa garatzeko, profesional bat behar da, sormena, ezagutza teknologikoa eta programazioan esperientzia handia duena. Profesional honek, bere ezagutzari esker, aplikazioa eraginkorra eta erabilerraza izango dela bermatuko du. Gainera, taldeko kide garen hirurok ere garrantzia izango dugu zerbitzua sustatzeko, promozionatzeko eta erabiltzaile potentzialak erakartzeko abileziak garatuz. Komunikazioa eta marketina izango dira gure trebetasun nagusiak.

- **Finantzia baliabideak:**

Proiektua hasteko hasierako inbertsioa ezinbestekoa da. Diru hori aplikazioaren garapena finantzatzeko, eta Inteligentzia Artifiziala (IA) erabiltzeko beharrezko lizentziak eta tresnak erosteko erabiliko dugu. Horretaz gain, promozio kanpainak abiarazteko, zerbitzuaren hobekuntzak egiteko eta proiektuaren iraupena bermatzeko balioko du. Finantzazioa gure lehenengo urratsen oinarria izango da, eta arduraz kudeatzea izango da gure lehentasuna.